BOLUNAKO JENTILAK

Kortezubiko Tomas Kobeagak kontatuta 1919an

Garai baserriko andre bat Goikolako errotatik etxera zihoala, Boluna ondoko kurtzeroan emakume bat ileak orrazten topatu zuen. Hura ikusi zuenean, bere orrazia utzi eta alde egin zuen. Garaiko andre horrek, orrazia hartu eta etxera eraman zuen. Hurrengo gauean etorri egin zitzaion orraziaren bila etxera ileak orrazten egon zena, eta esan zion emateko, bestela mendekua hartuko ziola. Gero eman zion eta jentila joan zen kobara.

Kondaira hau inguru horretan gertatuko zen. Argazkiaren ezkerraldean Bolunako koba dago.

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973